# ttipi-ttapa

**255.** zenbakia • 1999ko ekainak 3 • **XVIII.** urtea



# URTXINTXA: Txirrindulari gazteak hasiak dira lanean

Baztan, Malerreka, Bertizarana, Bortziriak eta Leitzaldeko txirrindulari gazteak –hamabortz eta hemeretzi urte artekoak– biltzen ditu Urtxintxa elkarteak. Aurten, Aptiva ordenagailu markaren eta El Corte Ingles-en laguntza izanen du eta bi talde errepideratuko ditu, kadete eta jubenil mailan. Bertizko jauregian egindako aurkezpen ekitaldian, eskualdeko hainbat kirolari famatuen babesa izan zuten. Hauen artean, urtero-urtero kirolari onenari saria emateko asmoa du Urtxintxa elkarteak. Migel Indurain haundia ereekitaldian izan zen. Atarrabiakoak txirrindularitzan hasi zeneko garaiak gogoratu zituen eta bera ere erretiratu edo gibeleko postuetan sartzen zela erran zuen, beti bezain xalo. Txirrindulari gazte eta kirolari famatuekin batera, Berako Gure Txokoa, Doneztebeko Erreka eta Leitzako Aizantxirrindularitza eskolako haurrak ere izan ziren Bertizen.

☞ 28



*Txirrindulari gazteekin batera eskualdeko kirolari famatuak eta Migel Indurain izan ziren Bertizko aurkezpen ekitaldian*

**3** Elkarrizketa: **Ana ERASUN**

«D ereduan ari diren irakasleen erdiak eman diote botua LABeri» dio Nafarroako irakaskuntza publikoko hauteskundeetan sindikatu abertzalearen buru izan den aurtiztarrak.

**4** Erreportaia: **Saran zooa zabalduko da laster**

Sarako Etxola du izena eta 70 animali ezberdin izanen dira ikusgai.

**6** Iritzia: **Udal hauteskundeak**

**TTIPI TXARTELA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.





Juan Larregi «BITXO»
Santiago, 10 • 948 580 898 • ELIZONDO
ITE-40
PROMOZIOA
Moto-aitzurrak 75.000 ptatik goiti
Belar-moztekoak
40 c.c.ko Desbrozadorak
PROMOZIOA
68.000 Pezetatik goiti.
Ur-garbigailuak:
gasolinazkoak eta elektrikoak
Traktore, ikuilu, granjak...
garbitzeko.




ORDOKI ALTZARIAK
Estilo ugariko mobleak
Kalitatea prezio egokian
ERAKUSKETA
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA
Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780
LESAKA
LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAULKIAK...

DATUAK.........

❖ *Maiatzaren 13an Nafarroako irakaskuntza publikoan hauteskunde sindikalak egin ziren, eta LAB sindikatua alde haundiz gailendu zen.*

❖ *Partizipazioa arras haundia izandu da, lau irakasletik hiruk eman baitute botua. Inguru honetan botuen erdiak LABentzat izan dira.*

❖ *Batez ere irakasle kontratatuen botuak bildu ditu sindikatu honek.*

❖ *Ana Erasun, 36 urtezko aurtiztarra izan da LABen Nafarroako zerrendaburua.*

❖ *Garaipen honen ardatzetaz eta datozen lau urteetarako lan ildoei buruz mintzatu gara berekin.*

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ASIER GOGORTZA**

☞ **Ana ERASUN** *LAB-Irakaskuntza*

# "D ereduan ari diren irakasleen erdiak eman diote botua LABeri"

**LABEK 95EKO HAUTESKUNDEETATIK BOTO KOPURUA BIKOIZTU EGIN DU NAFARROAKO IPARRALDEAN. ZEIN IZAN DIRA HORRETARAKO GILTZAK?**

Gu aski kontent gaude lortutako emaitzekin. Nik uste dut gaur den egunean D ereduan ari garen guztion erreferente garbia bihurtu dela LAB, hor ari diren irakasleen erdiak LAB-eri eman baitiote botua. Bertzalde, LABek beti egin du apostu garbia iraskasle kontratatuen eskubideen alde: urtero lekuz ez aldatzen ez ibiltzea, oposizioak azterketa serioen ondotik ateratzea, zenbait gauzatan funtzionarioen eskubide berak izatea…

**HURRENGO LAU URTEETARAKO LAN ILDOAK PRESTATUXE DITUZUE?**

Bai, hiruzpalau eskakizun nagusiak hauek izanen dira: euskararen legearen aldaketa; Nafarroako eskola publiko guzietan D eredua sartu ahal izatea erran nahi baitu horrek. Iruñea aldean badira eskaera ikaragarriak eta ezin dira inondik inora bete. Bertzetik, euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzea eskatuko dugu.

Gainera, 3 urtetik beheitiko haurren zikloa beharden bezala antolatzea eskatuko dugu, gaur egun eskaera haundia baitago. Azkenik, lan osasunaren hobetzea ere exigituko dugu. Izan ere, badira irakasleen artean bizpahiru eritasun tipiko errekonozituak ezdaudenak: ahots gaixotasunak, estresa eta depresioa.

**LAB SINDIKATUAK NOLA BALORATZEN DU LOGSEREN ORAIN ARTEKO IBILBIDEA?**

Gu banaz bertze bat gatoz teorian planteatzen diren helburuekin, baina ikusten dugu baliabideak hagitz eskas gelditzen direla gero praktikan gauzatzeko.

Zenbait puntutan gabezi haundia dago, adibidez atzerriko hizkuntzan, ikasle kopuruak kontuan hartzen ez direlako. Gero, lanbide heziketako zikloetan euskara aldetik gabezia ikaragarriak daude.

**ZENBATEKO ERAGINA IZANDU ZUEN MAIATZAREN 21EKO GREBAK HEZKUNTZA MUNDUAN?**

Eragina haundia izan zen, erabatekoa. LABek greba deialdia egiteko arrazoi batzuk jarri genituen mahai gainean: aparteko orduen deuseztapena, adibidez. Eskola ttikietan administrari lanak irakasleok egiten dugu, eta gauza bera jantokiarekin, baina berez ez genuke lan hoietan aritu behar.

Gero, eskoletan ematen diren baja kasuetan biastebaino guttiagokoak baldin badira ez da ordezkorik igortzen, eta hori ez kontutan hartzea eskatzen dugu, beti norbait egotea ordezkapenak egiteko.



**«LOGSEren teoriarekin bat gatoz, baina praktikan ez da baliabide nahikorik».**

*"«Euskararen legea aldatzea eta euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzea eskatuko dugu»."*

ERREPORTAIA




# Uda huntan idekiko da Sarako zooa

**_Ipar Euskal Herrira turista aunitz joaten dira urte osoan. Eta Ipar Euskal Herrian bisita gehien hartzen dituzten hiru lekuen artean bi Saran daude: San Inazioko kaxkotik abiatzen den Larungo tren ttikia eta lezea, hain xuxen. Bada, ekainaren erdialdetik aitzinerat bertze arrazoin on bat izanen dute Sararat hurbildu nahi dutenek, orduan zabalduko baita "Etxola" animali parkea, Sarako zoologikoa. Hirutan hogeita hamar animali espezie ezberdin izanen dira ikusgai. Zooa pottoka gainean bisitatzeko modua ere izanen dute ttikienek. Arduradun izanen diren Kattin eta Martine Gerendiain ahizpek eman digute laster zabalduko den animali parke hunen berri._**

TESTUA: *AITOR AROZENA*
ARGAZKIAK: *KARMELE TOLOSA*

Kattin eta Martine Gerendiain ahizpen ekimenari esker, joan den urtean sortutako ideia gauzatzen ari da pittan-pittan. Azken moldaketak egin ondotik udarako prest izanen dute guzia: Etxola izeneko animalien parkea edo zoologikoa irekiko da Saran. Ez da izanen, noski, hiri haundietan ikusten den zooen gisakoa: elefanteak, tigreak, lehoiak edo tximuak ikusi nahi dituenak bertze nonbaitera jo beharko du. Hori bai, hegazti andana bat ikusi eta beraien garraxi, ulu, kukurruku eta txioak aditu ahal izanen ditu: sarrerako loro exotikoetatik hasi, paumak, tamaina eta kolore ugarietako usoak, faisaiak, punki itxurako oilo eta oilarrak... eta bertze hainbat hegazti, handik eta hemendik ekarriak dituzte dagoeneko bi hektareako lur eremura.

Hegaztiekin batera, Bretainiako ardi eta axuri nano beltzak edo Israeldik ekarritako ardia ere Etxolako animalien parkean daude jada. Oraindikan, astoak, ahuntz eta pittikak edo Vietnameko basurde ttikiak etxean gordeak dituzte Kattin eta Martinek, baina laister eremanen dituzte beraien bizilagun izanen direnen ondora.

### Parkea pottoka gainean bisitatu

Haurrek, zooa pottoka gainean ikusteko modua ere izanen dute eta denborarekin, animali gehiago ekartzeko

aukera ez dute baztertzen. *«Mementuan ditugunakin edekiko dugu Etxola, baina gero norkdaki? Polita izanen litzateke gehiago ekarri eta erakustea»* diote ahobatez Gerendiaindarrek.

Itxura eta jatorri bereziko animaliak badira ere, jateko orduan ez dute ohitura edo gusto bereziegirik: ardi eta ahuntzak belarra gogoko dute eta hegaztiek berriz, artoa eta oloa irensten dute.

Animali hauek ez dituzte bat batean erosi Gerendiain ahizpek. Ttiki-ttikitatik atsegin dituzte animaliak eta harat-honatean, feria eta merkatu ezberdinetan ikusi eta erosiak dira animali gehienak.

### Bi Hektareako lurrean 120.000 liberako gastua

Orai arte etxean izaten zituzten, baina duela urte bete zoo ttiki bat osatzea gogoratu zitzaien. Lizarietako bidean, bi hektareako herri lurra errentan hartu zioten Sarako Herriko Etxeari eta geroztik lanean ari dira: larrak garbitu, luberriak atera, kaiolak prestatu, bidea moldatu, komunak edo zerbitzuak egin eta etxola ttiki bat eraikitzen ari dira orain, harri xabalekin ederki apaindua. Etxola honetan eginen dute lan bi ahizpek, bisitariei informazioa ematen eta sarrerak salduz. Lanean buru-belarri ari dira, ekainaren erdialderako parkea zabaltzeko asmoa baitute. Ohiko lanekin batera, ezohikoak ere egin behar izan dituzte: azeriaren bisita ere izan dute pare bat aldiz, eta kaiola inguruetan arteak jarri dituzte, badaezpada. Guzira 120.000 libera inguruko gastua egin dute, hau da, 3 milioi pezeta gutti goiti beheiti eta Kattin eta Martinek errandakoaren arabera, ez dute dirulagantzarik ukan. Sartzeen prezioak ere finkatu dituzte: 25 libera (625 pezeta) helduendako eta 15 libera (375 pezeta) ttikienendako.

Egia erran, ez dute lezeetan eta Larungo trenean bertze bisitaririk espero, baina leku horietarat joaten direnentzat, eguna osatzeko aukera polita eskainiko zaie Etxola zooan. Turisma bulegoetan eta eskoletan informazioa banatuko dute, beraien eskaintzaren berri emanez. *«Ez dugu kalkulatu zenbat bisitari etortzen ahal diren. Guk ahalik eta gehien agertzea espero dugu»* diote irrifarrez.

Gu joan ginenean, animali guziak ez zituzten parkean sartu eta oraindik txukuntze lanetan ari ziren, baina uda partean, jendearentzat zabalik dagoenean eta azienda guziak prestatuak dituztenean, bertze bisitaren bat eginen diegu, dudarik gabe. ■



**Indioilar beltza**
Bere haragia hagitz preziatua da (EEBB-tan Eguberretan jaten dute). Amerikakoa da jatorriz.



**Indioilar xuria**
Ez da beltza bezain ezaguna, baina iduri-koak dira. Garrasi berezia du.



**Gineako oiloak**
Ezagunak dira inguru honetan bere haragiarengatik. Oilo pintazuak ere deitzen zaie.



**Venere faisaia**
Xuriak eta nabarrak. Hanka luzeak eta sare itxurako lumak dituzte.



**Bretainiako ardia**
Ardi eta axuri bereziak dira, denak beltzak eta nanoak, ttiki-ttikiak.

☞ **Kattin eta Martine GERENDIAIN** *Arduradunak*

## «Ttiki-ttikitatik animaliak erostea eta etxean ukaitea maite dugu»



**Nola gogoratu zitzaizuen Saran animalien parkea muntatzea?**

Ttiki-ttikitatik maite ditugu animaliak eta betierosi eta etxean ukan ditugu. Gauza polita da. Duela urtebete-edo, animali hauek jendeari erakustea ideia polita izan zitekeela pentsatu genuen. Lurra hartu, antolatu eta, azken moldaketak egin ondotik, ekainaren erdialdera Etxola animalien parkea zabalik egotea espero dugu.

**Nondik erosi dituzue hainbertze abere?**

Animali bereziak direla egia da, baina ez gara urrunegi joan, gehienak hemen inguruko ferietan erosi ditugu. Gehienez ere Bordelera, Tarbera... joan gara. Gero, prentsan eta aldizkarietako iragarkien bidez ere erosi ditugu batzuk.

**Nola antolatu duzue bisitariek eginen duten itzulia?**

Jendeak parkearen barnean ez du gidaririk izanen, beraiek beraien gisara eginen dute itzulia. Ttikienek pottoka gainean ematen ahal dute itzulia. Kaioletan emana izanen da animali bakoitzaren izena eta zenbait datu. Gehiago jakin nahi duenak galdetu egin beharko digu.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
**Internet:**
http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goiexe, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... **Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortziriétako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**
Hego Euskal Herria . . . .2.000 Pta.
Ipar Euskal Herria . . . . .140 Libera
Europa . . . . . . . . . . . . . .3.500 Pta.
Amerika . . . . . . . . . . . .15.000 Pta.

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Hauteskundeak ekainaren 13an

## Idurikatzen zaidan berrikuntza bakarra Urrozko alkatesagaia liteke



Eduardo GIL BERA
Narbarte

Erreka huntako gaizkien informatuta dagoena naiteke ni, baina, beti ere, botepronton errateko, idurikatzen zaidan berrikuntza bakarra Urrozko alkatesagaia liteke. Gainerako zokoetan betikoak edota betikoen eskutik zeudenak agertu dira.
Itxuraz, somatu den detailea izaten ahal zen ere EAk, bai Narbarteko herrian, bai Bertizaranan eta baita Parlamenturako zerrenda osatzeko izan dituen zailtasunak jendearen edota borondatearen eskasiagatik.
Jendeak indiferentzi haundi xamarrez ikusten du teatroa eta dagoenarekin entusiasmo soberarik ez badu ere, interes gutti du bertzerik egiteko.
Bertzalde Nafarroako hautagaietako ikusi dudan kareto berri bakarra Lizarberena da, kartel haundixko batean. Eta karantza beratu horrekin eta hainbertze entrenamendu eta iduri asesorazioen ondoren irribarre faltsu plasta hori lortu duen hoberena baldin bada...

## UPNk 4-5 zinegotzi aterako ditu Baztanen, EH 2 edo 3, eta EAk 7; hori uste dut



Pedro ESARTE
Baztan

Nik uste hautesleek alderdi estatalisten edo bertakoen artean aukeratu beharko dutela.
Ttipi-ttapan ikusi nuen UPNk Leitza eta Baztanen soilik atera dituela zerrendak. Baztangoa eskasa dela iduritzen zait, jendeak irabazleari bozkatzea gustoko duelako. Gainera, ez du zerrendetan sartzeko nekazaririk ere lortu.
Bertzalde, orain arte Balleko Alkatearen jarrera permisiboegia dela uste dut. Mendia erretzen denean denok dakigu bere ardiak han dituen artzainak egin duela. Alkateak Iturraldek bere garaian egiten zuen gauza bera egiten du, ordea. Baztango nekazariak lasai bizi nahi du, permisibidadez. Hemen bakoitzak ahal duena biltzen du. Lur eremuaren %75a komunala duen eta nekazariak indibidualistak diren herri batean politika egokia da hori. Ez da nere gustokoa, baina...
Nere pronostikoaren arabera, UPN 4-5 zinegotzirekin gelditu ko da Baztanen, EH 2 edo 3rekin, eta EAk 7 ditu seguruak.
Nafarroan, berriz, alderdi estatalistak izanen dira irabazle. Horregatik, PNVk EArekin eta HBk EMK, Zutik edota Batzarrerekin egindako koalizioak begi onez ikusten ditut, sakabanatzen diren botoak aurkariarendako izan ohi direlako.

## Erriko Itxen, lau urte aski, martxa pixkot artu ta tranpa ttikik ikasteko



Patziku PERURENA
Leitza

Bat: Erriko Itxen, lau urte aski, martxa pixkot artu ta tranpa ttikik ikasteko, ta beste lau urte, fiña baza, zere ilusiok burutzeko; ta noski, zakurra baza, zere zakurlanik aundixkonak itteko. Hortik gotti, akabo! Alkate, zinegotzi, herrilangile edo azken eskazale denak bixiotxartzen ga.
Bi: Erriko Itxen, erriko kontuk xuxen ibilli, ta gutxi geio. Edoziñ alderdik ere, yoera aundia do, ordea, bere sentimentu, idelogi edo lema partikularrak Erriko Itxen bidez gizarteratzeko, ta sesiorik ergelenak ere ortik sortzen dia. Biño, ojo: alderdi bakotxak batto bere sedek eta sarek, bere kezkak bideratzeko, ta andik eiñ bartakok ez ditzala erri guzin izenpen ta dirupen erri batzarretik eiñ. Edukatu bar aundia dauki ontan, bai politikok bai botoemallek; aspaldiko bixio kutsakorra baita.
Pukatzeko bi xuxenketa. Bat: ni ez naiz EH.ok talden ez alde ez kontra iñon azaldu. Bi: enaiz ere Euskal Herrian Euskaraz taldekoa. Ta eztaukit edoziñ biziñ euskalerritar ta euskaldun naizela iñori erakutsi barrik, ez botoz ez kultur idelogiz. Ai, izenakin aski balitz, oloko do alako izateko! Biñoez, xuxenketok, eta leittu ttuan beste batzuk lekuko. Or konpon izenakin; izanari eusten naiko lanak battut nik.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
**LESAKA:**
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Arantzako herriari arantzarik ez!**

Arantza da Nafarroako udalerririk euskaldunena. Erdaldun elebakarrak dozena bat ez dira Arantzan. UEMAko partaidea da eta udalak lan haundia egin du herritarrei euskarazko zerbitzu ona emateko.

Baina, arantzak jarri nahi dizkiote Arantzari: Udal hauteskundeei begira EAJ-EA koalizioaren zerrenda burua erdalduna da: ez daki euskaraz mintzatzen. Koalizio honen arduradunek ba al dute honen berri? Izan ere, zertarako bertzela hainbertze euskararen aldeko aldarrikapen eta sinadura? Zertarako hainbertze ahalegin eta diru udal langileak euskalduntzeko?

Alderdi abertzaleek ukaezinezko erantzunkizuna dute herri honen hizkuntza normalkuntza prozesuan.

Orain dela lau urte Urdiain UEMAko partaidea zen, lan haundia egina zuen udalak herritarrei euskarazko zerbitzua emateko. Alderdi abertzale batek hiru zinegotzi erdaldun elebakar sartu zituen udaletxean, eta ondorioz, bertan behera gelditu zen euskararen berreskuratze prozesua. Hutsetik hasi beharko dute euskararen normalizazioa hurrengo lege aldian urdiaindarrek. Berriro errepikatuko al da istorioa?

Egoera tamalgarri hauek ebitatzearren, gogoratu nahi diet alderdi politikoei EKBk egindako proposamena:

1- Beraien zereginak euskaraz bete ahal izateko gaitasun nahikoa duten langile eta arduradunen alde egitea.

2-Alderdiaren sail ezberdinetan erabilera planak abian jartzea.

Hirugarren puntu bat sartuko nuke nik: udalerri euskaldunetan udal zerrendak euskaldunekin betetzea. Bitartean, eta koherentziaren izenean, dagokionari, Arantzako EAJ-EAren zerrenda buruaren dimisioa eskatu dezala eskatzen diot. Gainerakoan alferrik gabiltza!

IÑAKI ARREGI
UEMAKO KOORDINATZAILEA

**Erredakzioaren oharra**

252. alearen kontrazalean, arrazoi teknikoengatik, erredakzioaren eta enpresa kontratatzailearenak ez diren arrazoiengatik, Nafarroako Aurrezki Kutxaren iragarkia gazteleraz argitaratu zen, eta ez euskaraz, aipatu Aurrezki Kutxak nahi zuen bezala. Eta jendeak jakin dezan argitaratzen da honako ohar hau.

ERREDAKZIOA


Zure herria.
Zure ilusioa.
Zure etorkizuna.

Patxi Oiartzabal
BAZTANgo kudeaketa gaitasuna indartzeko ari da lanean

José Luis Semper
BERArentzako aro berri bati ekin nahi dio

Agustín Arribillaga
ETXALAR hobea eraikitzeko ekin dio lanari

EA
eman botoa eusko alkartasunari zuk nahi duzun herriaren alde.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Pirineos 99ko urtarrila-otsaila

*«Diotenez, Irunen ba omen zen goxotegi bat Baztango arraultzeetan espezializatua. Gaur egun oraindik badago kostaldearekin hartu-eman hori, eta aipatu behar dut gure etxeko espezialidadea, legatza, Pasaiako portutik heldu dela».*

**Teresa SANTXOTENA**
Elizondoko sukaldaria
Pirineos aldizkaria 99-02

*«Lesakan Ortziral Santuko arratsaldean karakolak jateko ohitura zegoen. Horren funtsa guttikoak izaki, ez zuten baraua hausten. Bertzalde, erran behar da barekurkuiloak ez direla ekaitza delarikan ateratzen, atertutakoan baizik».*

**Victor Manuel SAROBE**
Diario de Noticias 99-05-08

## 11 GALDERA LABUR



**Alan Edward LEIPER**
BERA
Ingles irakasle eta gasnagilea

◆ **Zein dira Euskal Herria eta Eskoziaren arteko antzekotasunak?**
❖ Eguraldia eta paisaia batez ere.
◆ **Eta jendearen artekoak?**
❖ Abegikortasuna, independentzia eta kirol gogorrekiko zaletasuna. Baita jale eta edale onak direla.
◆ **Zer da zailagoa, euskara ikastea edo gasna onak egitea?**
❖ Biak dira zailak. Biak mimatu eta praktikatu behar dira aunitz.
◆ **Zein da probatu duzun gasnarik hoberena?**
❖ Ez dut marketan erreparatzen, baina beharbada Periko Telletxearenak... Sunbilla eta Etxalarren ere arras onak egiten dituzte.
◆ **Zure gasnaren sekretua?**
❖ Pazientzia eta teknika zorrotza.
◆ **Begetarianoa zara. Zer erraten dizu hemengo jendeak?**
❖ Aunitz harritzen dira. Hemen txuletaren kultura dago, eta batzutan eztabaida sakonetan sartzen gara.
◆ **Menu bat.**
❖ Entsalada mistoa, pikillo piperrak, porru pastela, arroz integrala barazkiekin eta postrerako gasna, menbrillo eta intxaurrak.
◆ **Eskoziako eta hemengo zerbezak badute zerikusirik?**
❖ Nik ja ez dut edaten, baina hemengoa fuerteagoa da. Hala ere, han kantidade haundiagotan edaten da.
◆ **Musika talde bat.**
❖ Deep Purple. Hemengoak Oskorri eta Su Ta Gar.
◆ **Eskoziatik zer somatzen duzu faltan?**
❖ Nere jendea, lakuak eta hango tradizioak.
◆ **Zu jaio zinen herrian errodatu zen "Braveheart" filma. Beran zein grabatuko zenuke?**
❖ Gerra Zibila baino lehenagoko denboretan girotutako bat. Lehengo eta oraingo euskaldunen arteko diferentziak ezagutarazteko.


OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948 63 00 18 • BERA

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.
✆ 948 63 11 37 • BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

PRODUCTOS ARTESANOS
ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

KULTURKARI
Inprenta lanak
• Kartelak
• Boletoak
• Faktura taloiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
• ...
✆ 948 63 11 88

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira




*Juan Cruz Alli*

# *Nafarroako aniztasunarekin itzarmena*

*Egin nahi dugun erkidegoa:*

- ✓ *nafar guztion lankidetza elkartuarekin eraikitzen duguna.*
- ✓ *guztion artean demokratikoki aurreratua sozialki zuzena eta aurrerakoia egiten duguna.*
- ✓ *bere erakunde demokratioak pertsonen eta giza duintasunaren eta eskubideen zerbitzura dituena.*
- ✓ *elkarrekin bizitzea, mintzatea, onartzea eta begirune izateko tokia duena.*

**CONVERGENCIA**

**NAFARROAKO DEMOKRATAK**

☞ MUSIKA

# Leitza, Doneztebe eta Lekarozko institutuetako musika ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte

Lehendabizikoa ortziral honetan Bordatxo dantzalekuan izanen da

Leitza, Lekaroz eta Doneztebeko institutuetako ikasleek zenbait musika kontzertu eskainiko dituzte ekainan hiru herriotan. Musika emanaldi hauetan, 300 bat ikaslek parte hartuko dute, ikasturte osoan musika arloan landu eta ikasitakoa jendaurrean eskaintzeko asmoz.

Lehendabiziko kontzertua ortziral honetan, ekainak 4, arratsaldeko 5etatik aitzinera eskainiko dute Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Bigarren emanaldia heldu den ortziralean, ekainak 11, izanen da, arratsaldeko 5etan Leitzako Amazabal pilotalekuan. Ekaineko hirugarren ortziralean, 18an, Lekarozko pilotalekuan izanen da azken kontzertua, hau ere arratsaldeko 5etan.



**Urte osoan ikasitakoa jendaurrean eskainiko dute.**

Artxibokoa

☞ GASA

## Butanoaren errebisioan iruzur kasuak gertatu dira Nafarroan

Azken asteotan, Gas butanoaren instalazioaren errebisioak egiterakoan zenbait irregulartasun agertu dira. Hain zuzen azken aldian gure inguruotan gertatu den timo edo iruzur moduko baten inguruan ari gara.

Dagoeneko Nafarroako ehundaka etxeetan egin duten iruzur hau honetan datza: Euskogas izenaren azpian gordetzen den enpresako zenbait ustezko inspektore etxez etxe dabiltza, printzipioz bortz urtero egiten den gas instalazioen errebisioak egiten. Normalean zerbitzu hau 3.000 bat pezeta ordaintzen da eta gainera zihurtagiri bat ematen zaio bezeroari hurrengo errebisio eta ikuskapenean aitzinko aldiz noiz egin zen jakiteko. Timatzaileek, agiri hau ez emateaz gain 6500 bat pezeta kobratu egiten dituzte, inspekzio faltsu hori egiteagatik. Beraz oroitu ezin diogula edozein moduko ikuskatzaileari atea ideki, eta hala eginez gero zein enpresetako langile den errratea eskatu behar zaio. Bertzalde ez litzaiguke gaizki etorriko azkeneko gasaren instalazioen errepasoa noiz egin zen begiratzea, horrela hurrengoa noiz izanen den ere jakiteko.

Nafarroako Gobernuan 200 bat denuntzia jaso dira jadanik, horrelako timo edo iruzurrengatik, beraz erne egon!



## BERA

# Altzateko bestak, ekainaren 11, 12 eta 13an

## II. Pilota Goxo Txapelketa ere egun hoietan jokatuko da

ASIER GOGORTZA

Hauteskunde bezperan suertatu dira aurten Altzateko bestak, eta seguraski bat baino gehiago bestondoarekin joanen da botoa ematera. Ortziraletik igandera bitarte haur, gazte eta helduentzako hainbat ekitaldi prestatu dituzte:

**Ortzirala, ekainak 11:**
**19etan** Pilota Goxo Txapelketa Eztegara pilotalekuan. Gure Txokoak antolatua.
**22etan** Kontzertuak: Bidaxkan, THANATOS Zizkan, TRIO-QUARTTET Puin, SONOMA

**Larunbata, ekainak 12:**
**12etan** Altxaferoa. Gero erraldoi eta buruhaundiak.
**4,30etan** Haur Jokoak Kiroldegian, Kaxerna Aisialde Taldearekin (bonba japoniarrak).
**20etatik 21etara** Poteoa Larrakaitz txarangarekin.
**24etan** Zezensuzkoa.
Ondotik Larrakaitzek joko du gau guzian.
**1etan** Zezen mekaniko txapelketa.

**Igandea, ekainak 13:**
**14etan** Herri bazkaria.
**19etan** Gure Txokoako dantzariak. **20etan** Bertsolariak: Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea eta Julen Zelaieta. **21etan** Musika Altzateko plazan: KRISTINA ETA AMAIA.
**22etan** Zezensuzkoa.

### Erregionaleko lehen mailara goitu da Gure Txokoa

Igoera fasean bigarren tokian gelditu ondotik mailaz igatea lortu du Gure Txokoa futbol taldeak. Zorionak!

### Saverak Txinako lantegi batean 1.100 milioi inbertituko ditu

Shougang enpresarekin hitzarmen bat sinatu du Txinan lantegi berri bat martxan jartzeko. Igogailuentzako giak eginen dira han ere, eta Saverak jarri du kapitalaren %51, hau da, 1.000-1.200 milioi pezeta inguru. Gaur egun, munduan egiten diren lau igogailutik batek Saverak egindako giak daramatzate.

### "Parkinson eritasuna XX. mende hondar aldera"

Gai hori izanen da solasbide bihar (ekainak 4) arratsaldean Kultur Etxean. Nafarroako Unibertsitateko Anatomia departamentuko zuzendariak, Jose Manuel Giménezek, batez ere adineko jendea hunkitzen duen eritasun honi buruzko kontuak aipatuko ditu. ANAPAR elkarteak antolatu du hitzaldia, Berako Udalaren laguntzaz. Arratsaldeko 7,30etan hasiko da.

### Eskolarteko txapelketak

Herriko zenbait ikasle sarituak izan dira Nafarroako eskolen arteko Bertso Paper Lehiaketan: Celia Ordoki ateri da irabazle, eta Egoitz Zelaieta, berriz, txapeldunorde.

### Euskal Herriko 63 akuarelisten erakusketa

Urtero egin ohi duten bezala, Gure Txokoa eta Selarua (Urruña) elkarteek Euskal Herriko akuarelisten erakusketa prestatu dute ekainerako. Elkarlan honen ondorioz, ekainaren 6a arte Urruñan egon den erakusketa Berarat etorriko da 11rako. Hilaren 20a bitarte arratsaldeko 6etatik 9etara Kultur Etxean egonen dira ikusgai koadroak.

63 margolari hoien artean herriko zenbait ere badaude, Sanz anaiak, Josu Goia, Maria Irazoki, Maite Elgorriaga edo Juan Carlos Olaetxea errate batera.




### Grebak dexenteko eragina izan zuen herrian, batez ere fabriketan

Ia lantegi guziak geldirik egondu ziren, eta langileak kanpora ateri ziren 35 orduen eta soldata sozialaren alde egiteko. Herriko denda gehientsuenek, ordea, beren ateak zabaldu zituzten deialdiari kasorik egin gabe. Bertzalde, ostatu gehienak itxirik egondu ziren maiatzaren 21ean.

*Pertsonaia*

### *«Gai gogorrak tratatzen ditu obrak: porrota, bakardadea, heriotza...»*

Larunbatean "Shakespeare osoa" antzezlana ikusteko modua izan genuen Kultur Etxean. Toki horretan bertan izan zituen Joxelu Berasategik antzerkiarekin lehen hartuemanak.

Joan den udazkenean Bordeleko antzerki konpainia batekin murgildu zen antzerki eta dantza konbinatzen dituen proiektu batean. Orduztik, denbora gehiago ematen du Frantzian Euskal Herrian baino. Martxoaren hondarrean eta apirilaren lehen egunetan estreinatu dute "Quelques petits rien" obra: *«Ez dugu hitzik ibiltzen, dena gorputzaren espresioaren bitartez». «Obrak zuzendariaren unibertsoa isladatzen du, ez da batere alaia. Gai nahiko gogorrak tratatzen ditu: porrota, bakardadea, heriotza...»* dio.

Lamixinen hasi eta gero pixkan-pixkan antzerki munduan barneratzen joan da beratar hau.



Joxelu BERASATEGI

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA


MATXIARENA
ostatu - jatetxea
Altzate, 30 - BERA
✆ 948 63 13 76 - 948 63 00 33

Xirgil
Jaione Goya
✆ 948 631462
Altzate 1 • BERA

## ☞ LESAKA

# Hauteskunde kanpainako ekitaldietan buru-belarri sartuak

## Goretti Etxegarai txapeldun Nafarroako Matematika Olinpiadan

AITOR AROZENA

Hauteskunde garaian gaudela nabari da dagoeneko. Herriko paretak kartelez bete dira eta etxeetara hasi dira botoa eskatzen duten propaganda-orriak ailegatzen. Europa eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundetan sartu gabe, Herriko Etxera bi talde aurkeztuko dira, EAJ-EA eta EH. Biak ere zenbait ekitaldi antolatu dituzte egunotan.

Lesakako Euskal Herritarrok taldeak auzoetako bilerak egiten ari da. Ortzegun honetan, ekainak 3, Antoiu, Zarandia, Zialdo eta Albisturko bizilagunei zuzendutakoa eginen da arratseko 8etan famili bakarreko etxebizitzen plazan (piramidea). Ortziralean, ordu berean, Bittiria eta Izotzaldekoak deituak daude Bittiriako Plazan. Ekainaren 8an Alkaiaga eta Zalain Zokokoak bilduko dira, ekainaren 9an Frain eta Otsangokoak eta ekainaren 10ean Nabaz eta Katazpegikoak. Heldu den ortziralean, ekainak 11, arratseko 9,30etan mitin jaialdia izanen da Bittiriako aparkalekuan: dantzariak, bertsolariak eta berbena izanen da.

EAJ-EA koalizioko kideak ere lanean ari dira ekainaren 13ko udal hauteskundeak prestatzen. Oraindik ekitaldien egitaraua guztiz xehetua ez badute ere, dagoeneko Josu Jon Imaz, Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua eta Xabier Arzallus, Euskadi Buru Batzarreko lehendakaria izanak dira Lesakako Batzokian.



**Lehendabiziko jaunartzeak maiatzaren 16an**

Koadrila ederra bildu da aurten lehendabiziko jaunartzea egitera, 23 neska-mutiko guzira. Goitik hasita, ezkereskuin: Ion, Itxaso, Garbiñe. Aihelene, Joseba, Aritz, Itxasne, Olatz, Kristina, lander, Ander, Iñaki, Maider, Ainhoa, Asier, Maite, Naia, Alaia, Larraitz, Laura, Fred, Frand eta Josune.

Argazkia: Telletxea

### Hauteskunde mahaiak osatuak

Ekainaren 13an, harriko lau hautes-mahaietan egon behar direnen izenak jakinak dira: **Mahaiburuak:** Mª Anunciacion Aizpurua Jaimerena, Monica Sadaba Sarobe, Olga Altzate Bazterretxea eta Aitor Oiartzabal Ubiria. **1. mahaikideak:** Jose Ignacio Arriola Altzugarai, Mª Jesus Ubiria Inda, Jose Mari Arlegi Aiape eta Nonito Jesus Rodriguez Pazos. **2. mahaikideak:** Imanol Etxeberria Garcia, Jose Gabriel Larralde Tapia, Rakel Deskarga Oiartzabal eta Amaia Tapia Altzugarai.

### Hamazazpi talde Bortzirietako futbito txapelketan

Hamazazpi taldek eman dute izena Beti Gazte elkarteak antolatutako futbito txapelketan. Joan den urtean baino bat guttiago bada ere, uste baino gehiago dira, talde bakoitzean hamar lagunek eman baitezakete izena –8 iaz–. Launataldeko hiru multzo eta bortzeko batean banatuko dira eta norgehiagokak asteburu honetan hasiko dira Irain eskolako pilotalekuan.

### Pertsonaia

**Nafarroako Matematika Olinpiadan txapeldun**

Berako Toki-Ona institutuan DBH-2 ikasten ari den Goretti Etxegarai lesakarra txapeldun suertatu da Nafarroako Matematika Olinpiadan. Nafarroako osoko 112 bat ikasle zeuden, bikoteka banatuak. Toki-Onatik, Gorettiz gain, bertze hiru ikasle joan ziren, Lesaka, Etxalar eta Berakoak, baina ez zuten suerte haundiegirik izan. Gorettik, deustaz ezagutzen ez zuen bertze ikasle batekin egin behar izan zituen buruketa ezberdinak, bi orduz. Orain, biek, Nafarroako ordezkariak izanen dira ekainean Albacetenjokatuko den Espainiako txapelketan. *«Egun batean bikoteka ariko gara, bertzean bakarka eta gainerakoetan, museoak bisitatu eta Albacete ezagutzeko probextuko ditugu»* dio Gorettik. Ea bada Albacetetik ere txapela ekartzen duen!



Goretti ETXEGARAI

Manuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura
orohar
☎ 689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 948637791 • LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41• ✆ 948637518
LESAKA

BITTIRIA
ardotegia
Errioxako ardoa eta hertzbeteak
Bittiria, 61 • 948 637337 • LESAKA

## ETXALAR

# Ekainaren 20an eginen da Haurren Eguna

Heldu den igandean, berriz, ekainaren 6a, Gasna Feria

PELLO APEZETXEA

Ekainaren 20an eginen da aurtengo Haurren Eguna, ikasturtearen akabila gainean dela. Mezatik hasita, Ipuintopaketa, plazan bazkaria, bazkalondoan antzerkia eta herriko trikitilari gazteen soinua.

### Hauteskundetarako mahaia

Ekainaren 13ko hauteskunde edo elekzionetarako mahaian honako hauek egonen dira: Jose Joakin Zelaieta, mahaiburua; Jose Manuel Irigoien, 1. mahaikidea; Francisca Sarobe, 2. mahaikidea. Hauen ordezkoak, berriz, ondokoak dira: Olatz Zubieta eta Benedikto Agirre, mahaiburuarenak; Iñigo Senper, Angel Mª Iribarren, Jose Lasaga eta Pedro Mª Murgia, berriz, mahikideenak.

### Bidegurutzean autobusetarako geltokia, noiz?

Urteak joan dira, Etxalarlatsako bidegurutzean autobusaren esperoan egoiteko idorra Udalak eskatu zuela. Ukatu ez zuen egin Gobernuak, baina egin ere ez. Eta orduan bezala gaude gaur, okerrago, behar bada. Idorrik ezezik, egonlekurik ere ez baita, eta Iruñea-Irun bezalako errepidearen bazterrean gaur egoitea aski arriskutsua suertatzen da. Iruñe aldera joateko, batez ere. Non egoiten ahal da? Non egon behar da?

### Herri lanetarako sei langile hartu dira

Urteroko gauza da udapartean langile batzuk hartzea, Gobernuaren dirulaguntzaz. Aurtengoak, ordea, baditu berezitasunak: sei lagun presentatu dira eta seiak hartu ditu Udalak. Denbora, ordea, denen artean banatuko dute, bakotxari horrela bi hilabete eta zerbait egokituko zaio. Horrela hartzen diren langile artean, lehen aldiz sartu dira 2 emazteki.

### Udalekuak

Aurten ere izanen dute haurrek uztaileko goizak ongi pasatzeko aukera. Xeheki, ekainaren 28tik uztailaren 30a arte, asteko bortz egunez, astelehenetik ortziralera, eta eguneko hiru orduz, 10etatik ordubatera. Asteko egun bakotxa gai baten inguruan antolatuko dute, eta berorren ingurukoak izanen dira eskulanak, ateraldiak, jokoak, etabar. Xoraxuriko Bordako Anabel, Errandoneko Garazi, Etxeberribereko Itziar eta Behekozubiko Ainhoak hartu dute beren gain Udalekuen prestakuntza eta ardura.





**Urrezko Eztaiak**
Gaur Suspelaldean bizi diren Toribio Agesta eta Perpetua Arburuak beren ezkontzaren 50 urteak bete dituzte. Senide eta familiarekin bildu ziren ziren eguna gogoratzeko.

KAXULA
Sukaldeko tresnak
Opariak
Pinturak
Laister zabalik!
Albistur, 51
LESAKA
✆ 948 63 75 58

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
✆ 948635290 ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

BITTIRIA HARATEGIA
✆ 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

HARITZPE JATETXEA
✆ 948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

## IGANTZI

# Berrogeita lau ikasle izanen ditu Igantziko eskolak hurrengo ikasturtean

Bi eskeintza egin dira piszinaren kudeaketarako

OSKAR TXOPERENA

10 haur berri izan dira hurrengo ikasturtean eskolan sartzeko izena eman dutenak. Orain dela urte batzuk 28 ikasle inguru arte jeitsia zen ikaslegoa, baina, azken urteotan hazten ari da gelditu gabe haur kopurua. Irailean ikasturtea hasiko dutenak 44 ikasle izanen dira.

Haur kopurua haunditzeak bertze aldaketa batzuk ere eskatzen ditu, dudarik gabe. Iduri du aldaketa horiek bide honetik doazela eta irailatik aintzinera eskolako martxa bertze modu batera eramaten ahal izanen dela. Orain arte hiru mailaka zeuden elkartuak ikastordu eta gai gehienetan. Hemendik aintzinera klaseak zikloka edo bira mailaka emateko aukera izanen omen da, irakasle bat gehiago eta laguntzaile bat orduka ere izanen direla agindu baitute. Izanen dugu aintzinago berri horiek hobekiago zehazteko aukera.



**Lizarran kanpaldia**
1., 2., 3. Eta 4. Mailako haurrak Lizarran egon ziren aintzin horretan urteroko kanpaldi egunak pasatzen. Ez zitzaizkien eguraldi izugarriak suertatu, baina kontent etorri ziren halere. Ikasturte honetan egin beharreko haundixkoenak eginak dituzte dagoeneko. Egun erdiz ariko dira orain ekainaren 23 bitartean.
Argazkia: Oskar

### Arkupeko omenaldiak

Dakizuen bezala, Arkupeak Elkarteak urteroko ekainean egiten die omenaldia urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteei eta 85 urte betetzen dituztenei. Hauek dira aurten, omenaldia hartuko duten igantziarrak: Urrezko ezteiak: Eustasio Retegi eta Visitacion Iturbide Argatagaraikoak eta Angel Manterola eta Trinidad Zozaia Xabalan etxekoak. 85 urtekoak: Ramon Iguzkiagirre, Agustin Antxordoki, Antonio Retegi eta Joaquina Huizi.

### Piszinaren kudeaketa

Lehendabiziko deialdia hutsik gelditu eta gero, pentsatzen hasiak ginen ez ote zuen inork piszinak zaintzeko lanik hartuko. Bigarrenean, ordea, bi izan dira egindako eskeintzak, biak herrikoak. Maiatzaren 28an egitekoa zen bilkuran erabaki behar zuen Udalak nori eman lan hori. Guk hurrengoan aipatu beharko.

Uda guzirako txartelak Herrikoetxetik hartzen hasten ahal zarete.





FOTOKOPIAK
Txuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIFIKAZIOAK
ENKUADERNAZIOAK
IRUDI
KULTUR ETXE AURREAN
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 Eskuinekoa BERA
Tel-faxa: 948 63 15 21

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313




ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

LEGARRA
Legarrea, 9 • © 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

## ☞ ARANTZA

# Autobusa hartu eta hamar eguneko eskurtsioa Portugal, Espainia eta Marokkora

Ekainaren 7tik 17ra eginen dute bidaia

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko talde batek ekainaren 6rako bidaia antolatu du, autobusean. Ekainaren 7tik 17ra Burgosetik Andaluziara joanen dira, tartean Fatima eta Lisboa bisitatuko dituztelarik. Ceuta eta Tanger ere ikusteko denbora hartuko dute. Hogeita zazpi pertsona apuntatu dira eta gehienak herrikoak dira.

**Hauteskundeak**

Ekainaren 13an, igandea, Herriko Etxe, Nafarroa eta Europako Parlamentuetarako hauteskundeak izanen ditugu. Hori dela eta, Herriko Etxeak pasa den astean egin zuen plenoan aukeratu zituen, zozketa bidez, egun horretan mahaian egonen direnak. Lehendakaria: Fermin Elizondo Bertiz eta mahaikideak Bernardo Fagoaga Alzurin eta Encarnacion Indakoetxea Maiz. Badaezpada ere, bakoitzak bi ordezko izanen ditu.



**Ana Larretxea eta gainerako espedizio kideak Gasherbrum-II bidean**

Ana Larretxea aranztarra, Gasherbrum II- Savera Group Bortzirietako espedizioa osatzen duten bertze lau beratarrekin batera abiatu da Pakistan aldera. Jakina denez, 8.035 metroko altuera duen mendia bortzek igotzeko intentzioa dute. Anak lortuko balu, gailur hori zanpatzen duen lehen emakume euskalduna izanen litzateke. Argazkia: Goiko

## ▼ flash

**❖ Eskolako haurren ateraldiak**

Uda hurbiltzen ari den honetan, eskolako haurrak ere zenbait ateraldi egiten aridira. Honela, adibidez, Lehen Hezkuntzako haurrek, Bortzirietako gainerakoekin batera, Lizarran pasatuko dituzte egun batzuk.

**❖ Ternida Eguna**

Urtero bezala, joan den igandean ospatu zen Ternida Eguna eta inguru honetatik jende ugari hurbildu zen Mendaurko baselizara. Herritik ere, ohitura berrituz, pertsona aunitz joan zen, bidean gosaldu, urtegi inguruan bazkaldu eta egunpasa ederra eginez.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948627573 • LESAKA

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ✆ 948637264

PIKABEA pintorak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA


MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
✆ 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

## SUNBILLA

# Elizondoko Jordi Gual izanen da aurten igerilekuko arduraduna

### Eguneroko sarreren erdia beretzat izanen da

JAIONE ETA ALBA

Bigarren aldiz deialdia egin ondoren, azkenik udal igerilekuak badu aurtengo udarako arduraduna. Bigarren deialdi honetan hiru interesatu aurkeztu ziren eta horien artean Elizondoko Jordi Gual Zaldain izan da udalarentzako proposamenik egokiena eman duena. Beraz, bera izanen da ekainaren 15etik irailaren 15a arte Sunbillako igerilekuaren garbiketa eta sarreretaz arduratuko dena.

Erran behar da, Sunbillako Herriko Etxeak bigarren deialdia egin zuenenan baldintzak dexente hobetu zituela. Adibidez, eguneroko sarreretatik, arduradunak %50a jasoko du orain, lehendabiziko deialdian agertzen zen %25aren ordez.



Udal igerilekua ekainaren 15ean zabalduko da, urtero bezala. Artxibokoa

### Hauteskundetako mahaia

Dagoeneko egina dago heldu den ekainaren 13an burutuko diren udal hauteskundetan, mahaian egon beharko dutenen zozketa.

Presidentea, Maite Aizkorbe Sanzberro izanen da, lehendabiziko ordezkoa Maria Coronacion Arruti Peña eta bigarren ordezkoa Idoia Zunda Calderon.

Lehendabiziko bokala, Lucio Irazoki Etxeberria izanen da; bere lehendabiziko ordezkoa Manuel Agesta Zozaia eta bigarren ordezkoa, Francisco Javier Baztertika Agesta.

Bigarren bokala Pedro Mari Alzuri bertiz da, lehen ordezkoa Jose Francisco Arretxea Sagardia eta bigarrena, Itziar Almandoz Bereau.

## MALERREKA

### Istripu larria Doneztebeko bidegurutzetik Sunbillarako bidean

Maiatzaren 16an istripu larria gertatu zen Doneztebetik Sunbillarako bidean, Joseba Andiarenaren autoa errepidetik atera zenean. Gertaera honen ondotioz, Xabier Ariztegi Eizagirre, 15 urteko mutikoa, hilik suertatu zen eta Joseba larriki zauritua. Xabier Ariztegi Xaruta pilota elkartekoa eta joaldunen taldekoa zen. DBH ikasten zuen Donezteben. Joseba Andiarenak hobera egin du, larritasunaren barrenean, Nafarroako Ospitalean.

### Lur-eremuak bildu eta berrantolatu dituzte Saldiasen

Duela urte batzuk Beintza-Labaienen egin zuten bezalaxe, Saldiasen ere lur-eremuak bildu eta berrantolatu dituzte berriki. Guzira, 414 Hektareatan izan du eragina lur biltze honek eta lehen 1.219 zatitan banatuta zegoena 203 zatitan bildua dago orain.

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735



EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA



XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

Zure ingurua klase guztitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
✆ 948630155
BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 948 630763



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

# DONEZTEBE



Aurtengo denboraldia akitu berri du hiru urte bete dituen Mendi Abesbatzak. Argazkia: Zaldua

## Hiru urte sasoi betean egin ditu Mendi Abesbatzak

### Ekainaren 20ko Herri Lasterketan Javier Blas omenduko da

PATXI IRIARTE

Maiatzaren 30ean hiru urte bete ditu Doneztebeko Mendi Abesbatzak. Koralak orainaldi ederra eta etorkizun haundia du, 50 kideen artean afizioa eta aitzinera segitzeko gogo haundia baitago. Beldurrik gabe erraten ahal dugu Mendi Abesbatzaren sorrera eta ibilbidea, Doneztebeko azken urteotako kultur gertakari garrantzitsuena dela.

Aurtengo denboraldia akitu du, maiatzaren 22an Hendaiako Gaztelu Zahar abesbatzak Doneztebendako emanaldiarekin. Kantaldia arrakastatsua izan zen, Hendaiakoek 55 urteko historia baitute bizkar gainean. Doneztebeko taldearekin harreman estua dute eta beraien zuzendaria Iñaki Dieguez da, Doneztebeko Musika Eskolako irakaslea, hain zuzen.

Balantze gisara, Mendi abesbatza ongi hazten ari dela erraten ahal da: ez horrenbertze ahotsen kopuruan, taldearen kalidadean eta, batez ere, esperientzian baizik. Aurten, Irungo Kontserbatorioko Orkesta Gaztearekin parte hartu du eta Bretainia eta Portugalera bidaiatu du.

### Javier Blas omenduko da Herri lasterketan

Ekainaren 20an eginen da Erreka elkarteko bazkidearen Eguna edo Gaztediaren Eguna. Egun horren barrenean, Herri Krosa ere burutuko da. Erabat zehaztu gabe badago ere, Errekak omenaldia eskainiko dio Javier Blas zenari, aurten 21. aldia beteko duen lasterketaren «aitari».

*Pertsonaia*

### *Erreka elkarteko lehendakari izandako Javier Blas hil da*

Doneztebeko Erreka elkarteak, bere sorreraren hogeita bortzgarren urteurrena ospatzen ari den urte honetan, berri ilun eta goibela jaso zuen maiatzaren 24an: Francisco Javier Blas Seturain, Blas liburudendako nagusia eta hainbat urtez elkartearekin lotura izan duen gizona hil zen, eritasun larri baten ondorioz, 44 urte zituela. Lehendakaria izan zen hainbat urtez, baita eskubaloi taldeko lehen entrenatzaile ere. Gaur egun, Mendi abesbatzako kide zen. Beraz, Francisco Javier Blasen heriotzak hutsune nabarmena utzi du Doneztebe eta Malerrekako kirol eta kultur arloan.



Francisco Javier BLAS

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463

ttipi-ttapa telebista Malerrekan 62. kanalean
Oraindik ongi ikusten ez baduzu deitu
✆ 948 63 70 70
Javier Eneterreaga (Lesaka)

☞ **BERTIZ**

# Ingurugiroaren Eguna dela eta, hainbat ekitaldi izanen dira Bertizko Natur Parkean

## Larunbat honetan parkeko ateak denentzat zabalik egonen dira

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 5ean, Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, hainbat ekitaldi izanen dira asteburu honetan Bertizko parkean. Egun honen antolaketa Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Departamenduaren gain joan da, Aiansoro, Orbela, Berako Ehizi eta Arrantza elkartea, Nafarroako Onddo eta Perretxikoen Kofradia, Erreka Mendi Taldea, Bidasoa Kultur Zerbitzuak eta bertze zenbait erakunderen laguntzarekin.

Ortzegun (Arantza eta Zugarramurdin) eta ortziralean (Bera, Lekaroz eta Doneztebeen), eskualdeko DBHko ikasleendako ibilaldiak eta diapositiba emanaldiak prestatuko dira, ingurukomendizainen laguntazrekin. Lehen Hezkuntzako ikasleek, Kollins Clown taldearen birziklariari buruzko antzeslana ikusi eta birziklai tailerrean eta jokuetan parte hartzeko aukera izanen dute.



Parkeko basora eta lorategira bisitaldi gidatua egiteko aukera izanen da larunbat honetan, Ingurugiroaren Nazioarteko Egunaren barnean. Artxibokoa

Helduek ere birziklaiari buruzko solasaldia aditu eta «Nafarroa: bioaniztasun lurraldea» erakusketa bisitatu ahal izanen dute. Hamekekotakoa ere banatuko da.

Larunbatean, Bertizko Parkeko ateak zabalik egonen dira eta bisitaldi gidatuak egin ahal izanen dira Aizkolegiko gainera, Bertizko parkeko baso eta lorategira, Elgorriagako Onddoaren Ibilbidera (oinez nahiz zaldiz) eta Berako izokiaren neurketarako estaziora. Doneztebe-Bertiz ibilaldia ere egin ahal izanen da, Erreka mendi taldeak antolatuta.

### Artisautza erakusketa eta kultur ekitaldi ugari parkean

Parkean, berriz, artisautza erakusketa egonen da goiz eta arratsaldez. Ceder-na-Garalur, Bertizko Turismo Partzuergoa, Malerrekako Mankomunidadea eta Bio-Lur erakundeen proiektuak ere ikusteko modua izanen da.

Goizean, hainbat kultur ekitaldi izanen dira ikusgai: Goizeko 11tan Iturengo joaldunak, 11,30etan Doneztebeko dantzari taldea, 12,30etan Doneztebeko musika eskolako akordeoi eta txistulari taldeak eta trikitixa, Midegia anaiarreben eskutik.

Bazkaltzeko tarte bat hartu ondotik, arratsaldeko 5etan Mindegia anai-arrebak ariko dira berriz ere. 6etan Baztango dantzarien txanda izanen da eta 7etan haurrendako antzerki emanaldia, Adardunak taldearekin: «Ez gara zirko bat, baina guk ere tximuak baditugu». 8etan Duguna fanfarrea izanen da musika jotzen.

Bertzalde, BKZk antolatua, natur aktibidadeak egin ahal izanen dira goizeko 11tatik 2etara eta arratsaldeko 4etatik aitzinera: haurrendako rafting-a, piragua, hidrotrineo, arku tiraketa, hipika, rappel, mendi bizikleta, herri kirola, orientazioa, parapente...

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
✆ 948 450 491

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

BEINTZAko OSTATUA
✆ 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ttipi-ttapa internet

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun
24.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 948 63 11 88

☞ **BERTIZARANA**

# Kontzejuko hauteskundeak Legasa eta Oieregin



## Narbarten ez da zerrendarik aurkeztu eta beranduago osatuko dute kontzejua

TTIPI-TTAPA

Aitzineko alean, ekainaren 13an udal hauteskundetara aurkeztuko diren taldeen zerrenden berri eman genuen. Bertizaranako Udalaren barnean, ordea, kontzejuetako alkateak ere aukeratuko dira. Narbarten ez dute zerrendarik aurkeztu, beraz, beranduago egin beharko dituzte kontzejuko hauteskundeak. Legasan eta Oieregin zerrenda bana aurkeztu dute: Eusko Alkartasunarena Legasan eta Agrupacion de Electores de Oieregi izenekoa Oieregin.

Biak ere zerrenda irekiak izanen dira eta bietan, gaur egun herri horietan alkate direnak sartuak daude: Miguel Andresena Legasan eta Jose Maria Galarregi Oieregin.

**Legasa**

**EA**

1. Jose Javier Perez Arregi 2. Miguel Andresena Etxeberria 3. Fermin Zelaieta Lastiri 4. Jose Maria Etxepare Irisarri 5. Elias Castilla Andresena

**Oieregi**

**AEO**

1. Jose Maria Galarregi Apeztegia 2. Luis Aldabe Azan 3. Juana Lasaga Munarriz 4. Alejo Mindegia Mindegia 5. Tomas Mindegia Etxandi



# UDALETXEAK

## bizi berritu



Euskal H



ARANTZA

**JOSE RAMON AMOROS**

2. Idoia Etxeberria
3. Teodoro Pikabea
4. Xabier Zugarramurdi
5. Amaia Telletxea
6. Xabi Altzuri
7. Pantaleon Errandonea



ARESO

**JULIO NIETO**

2. Tomás Lozano
3. Josefa Marzol
4. Jose Etxarri
5. Jose Otermin
6. Ignacio Baraibar
7. Txomin Etxarri



BAZTAN

**MIKEL ALTZUART**

2. Txus Barrenetxe
3. Xabi Ballarena
4. Xotero Etxandi
5. Maite Irungarai
6. Andone Garde
7. Isaak Rekalde
8. Maite Iturburua
9. Joseba Otondo
10. Jorge Oteiza
11. Begoña Etxandi
12. Marian Karrikaburu
13. Iñigo Iturralde



BERA

**JOSU GOIA**

2. Maite Elgorriaga
3. Imanol Larrañaga
4. Oskar Goñi
5. Bixente Goia
6. Eneritz Mitxelena
7. Txaro Zubieta
8. Iñaki Gogortza
9. Josu Unsion
10. Mª Karmen Prieto
11. Paxkual Etxeberria



DONEZTEB

**TXEMA ALDABE**

2. Encarnación Andueza
3. Miguel Salaberri
4. Ainhoa Elizaga
5. Iñaki Lareo
6. Esther Fernandez
7. Martín Begino
8. Jose Fernando Apeztegia
9. Jose Mª Mikeo



LESAKA

**JOSE EMILIO TXOPERENA**

2. Xabier Portu
3. Luis Mª Atorrasagasti
4. Pello Astiz
5. Edurne Rekondo
6. J. A. Etxepeteleku
7. Jose Luis Cerezo
8. Begoña Igoa
9. Fco Jabier Martin
10. Iñigo Olaetxea
11. Dolores Albizu



SALDIAS

**MAITE MARIEZKURRENA**

2. Jose Luis Mitxelena
3. Ramón Otxandorena
4. Juan Jose Otxandorena
5. Ainhoa Elizalde



SUNBILLA

**PILAR KORTA**

2. Rakel Urtxegi
3. Jose Migel Petrirena
4. Alba Fernandez
5. Faustino Mariezku-rrena
6. Juan Jorajuria
7. Josune Otxandorena



ZUBIETA

**BENANTZIO BALEZTENA**

2. Ezekiel Loiarte
3. Jasone Astibia
4. Francisco Jabier Santesteban
5. Marcelino Santesteban
6. Balentin Santesteban 7. Martin Lorenzo Santesteban



ZUGARRAMURI

**MIKEL MITXELENA**

2. Eukene Jurio
3. German Arburua
4. Elena Jurio
5. Koro Irazoki

1999ko Ekainak 3

SENPEREKO

# Gehigarria

Euskal Kultur Erakundearen laguntzaz egindako gehigarria

## Izan niz balenkonian

1 Kantorenoak berririk
Sujetak berak emanik
Amodioaz gaixoa fidaturik
Ezarri bainau biziz gabeturik.

2 Izan niz balenkonian,
Orai niz plazerren erdian,
Erranen dauzut urrengo aldian,
Zer sendimendu dudan bihotzean.

3 Maitea konsola nezazu,
Bihotza ebatsi dautazu
Ni zure minez eritu nukezu
Senda nitazke zuk plazer bazinu.

4 Ene maiteak hitz batez,
Ihardesten daut bertutez,
Nik zurekilan ezkontzea ustez,
Amodiotan egon naiz bortz urtez.

5 Ene bihotza zurea da
Zurea norena ote da,
Atxik zadazu fidelitatea,
Gero izanen naiz betiko zurea.

6 Etxeko alaba doluan,
Deklaratzen da damuan,
Baldin ez badu izaiten premua,
Galdu beharko duela burua.

7 Sekulan orhoitzeko eguna,
Baionarat joan ginena,
Abendua zen ez urrun azkena,
Ogoi ta zortzia eta astelehena.

**FAGOAGA «Apeztei»k emanak**

## Aleman inperadore Guillaume

1 Aleman inperadore Guillaume aipatua
Urgulu banindate haiz inguratua
Munstro asasinante Guillaume aipatua
Orhoitadi badela zeruan Jainkoa.

2 Zenbat miliun gizon hik ez duk funditu
tenplorik ederrenak erre eta suntsitu
personik honestena hik han deshoratu
Luze edo laburzki beharko duk pagatu.

3 Orhoitadi badela tribunal fina
Hire kondenatzeko berria egina
Hortan salbatzen bada Kaiser-en arima
Gure erlijioa ez da arras fina.

4 Pertsu hauen emailea berenaz Senpertarra
Hirurogoita hamareko soldado zaharra
Berritz zerbitzatzeko joan zaio indarra
Galdearen begira dago hil harrietara. .

Airea: Iparragirren Gitarra Zahartxo bat

**Bidaxun zenak emanak, Pierrot BORDAren ahotik**



## Senpere

1 Aire "chahar" batean hasten naiz kantatzen
Ene pentsamendua deneri kondatzen :
Lehenago entzun dut "chahar" bat erraiten
Sor-lekua ez dela sekulan ahanzten:
Tipian maitatuz beti da orhoitzen.

2 Baionan bizi bainan Senperen sortua,
Ene gaztetasuna han dut pasatu;
Orai ere ardura han dabil gogoa,
Xoriño baten pare beti airatua,
Nola ahantz ditake leku maitatua?

3 Toki trankila dago Lapurdin Senpere :
Ontasun ttipi eta haundiak badire,
Eliza bat pollita, jauregia ere,
Mahasti-sagardiak, alor eta pentze,
Urrun inguruetan oihan eta larre...

4 Toki airosean da ene sor-lekua:
Landa bixkar batean tente plantatua,
Bere lur eta landez da inguratua:
Murruak xuri eta gorri teilatua,
Ttipi izana gatik ez da oraikoa!

5 Laudatua nahi ditut aita eta ama,
Konplitürik legea, Jainkoak emana:
Ohorezki hazirik holako andana,
Familia ederra baitute izana;
Azkenik sorturik naiz, hamekagarrena.

6 Zazpi alaba eta ginen lau mutiko,
Elgarren ondotikan jinak lerro-lerro :
Ontasun ttipia zen denak bizitzeko;
Zonbait gazterik ziren gan etxetik kanpo,
Batzuek mutil eta bertzeak neskato...

7 Bertze ainitzen gisa ene haurtasuna,
Eskola doi bat eta gero katixima,
Etxerat jinez geroz beti prest mahaina:
Zopa eta xingarra, arto eta gasna,
Pegarrian Lapitzeko itorrotx bat ona.

8 Astea arizanik lurreko lanetan,
Igandetan ardura meza bezperetan :
Handik lekora gero mus eta pilotan;
Bardin lagunekilan kantuz errepikan,
Erretira ordua jin arte frangotan.

9 Neguan bi anaiak usu oihanean,
Ote pikatzen edo bardin egurrean,
Zonbait aldiz egonak mindeiko gainean,
Bi bozetan kantari uri-aterbean
Taulazko oihantzainen etxola barnean!

10 Senpere kitaturik jadanik aspaldi,
Geroztik iguzkiak in ainitz itzuli;
Zonbat goiti-beheiti artean ibili!
Izerdiaren gostuz bizitzen ikasi,
Penak eta plazerrak baitira nun-nahi!

11 Kamiun batekilan nago gidaria;
Harekin ibiltzen naiz ni egun guzia;
Aspaldi kurritua dut Eskual Herria
Bai eta-re Landesak kaskoinen tokia:
Zoin zaitan ederrena erres pentsatzea.

12 Senpere herriari bihotzez "adios"
Baionatik igortzen diot amodioz
Ongi eginak beti baitira balios,
Agian denak gare izan lorios
Zeruko Jainkoaren grazien medioz.



Airea: Zuk xarmaturik nago, arrosa ederra

**Panpili zenaren bertsuak Paskal MENDIBOURE-k emanak.**



# Aguxtina Lartirigoien... edo Tinduaren gutizi ezin gordea

Agustina Lartirigoien-Lasségue,bada: 43 urte Senperen kokatua dugula. Nahiz eta, bere oinezko haurratsak, Suhuskuneko herrian ereman dituen, nahiz eta ere, bere sort-herriko berri larri eta xehe guziak oraino jakiten dituen, hala ere, Senpertarrek Senpertartzat daukate, eta berak ere ez du Senpere saltzekotan, erakasle gisa, urtez urte, hainbat Senpereko familietako haur, alabainan ezagutu ditu....bai eta, Xarlex, bere bizi laguna ere hemen aurkitu...

Betidanik dio deseinatzen zuela batzuetan etxean eta gero ere bere baitan zaukala prest tinduari lotzeko gutizia, bainan, artisten mundua, Euskal Herrian, ez oraino hain aspaldi, gehiago, gizoneri lotua zen emazteeri baino. Azken hauentzat, maiz "artixtakeria", denbora galtze bat bezala kontsideratua zelakotz.

Aguxtinak bere tindatzeko dohainak erdi lotan atxiki izan ditu beraz, urteak eta urteak, bainan «paradoxiaren paradoxiaz», huna nun erretreta hartzeko mementoan, duela 7 bat urte, dionaz, aukera bat ukan duen, bertze lagun batzuekin eraikitzeko tindalari taldetxo bat... hola... handinahikeriarik gabe, elgarrekin tinduaren medioz, plazerez, arratsalde goxo batzuen pasatzeko, elgarrekin zerbeitxo ere ikasteko, deus nehorreri frogatu nahi gabe..., bainan hala ere zerbait, pinturan gai egiteko zirela erakusteko.

Agustinak koloreak izigarri maite ditu: *«Berdin pasatuko dut kolore pixka bat nunbeit eta hor utziko, ikusteko, gero, horrek zer ekartzen ahal duen... beti zerbait ikusten da koloreak nahastean... to, holako gauz bat egiten ahalko nuke... Batzuetan segidan ikusten dut zer eginen dutan, bertze batzuetan, zortzi egunen buruan, nola gerta...»*. Pentsatzen ahal litaike beharbada ˝suerteak˝ duela Aguxtinaren Tindua manatzen, baditake nun zerbait... bainan dio ere, mementoko giroak, sasoinetako harat-hunatek, biziaren gertakizunek badutela zer ikusirik bere sorkuntzaren jauzietan. Adibide edo etsenplutzat hartuz, Jondoni Joaneko gaua aipatzean, suak, edo Iruñan, San Ferminak direlarik, bestaren giroak, zezenen lasterkadek bere baitara botatzen diozkate hats koloreztatu berezi batzu, gero tinduan agertarazi nahi dituenak...

Zazpi urte ari dela beraz Aguxtina tindatzen... orai ortzegun guziez bere bertze lagun tindalariekin duen hitz ordua ezinbertzekoa bilakatu zaio... ez bailitaike egon aste bat, pintzelarik unkitu gabe...

Sasmanaenea, bere etxe barne guzia, emeki emeki, Aguxtinaren obrez ari da museo edo erakustoki bat bezala bilakatzen eta kanpoan, Maiatzeko egun goxo hun-


Aguxtinaren obra, Jondoni Joane gauetk aitzin ikusgai.

tan, bere etxe aintzinetik ikus ditaike hor beheraxago, Senpere herri guzia..., han urrunean, ametsetako edoietan den Larrun mendia..., eta etxe inguru guzian, xorien berroetako lore floka xuriak, hor bai hor, eta bertze nihun ere ez, hobekiago ez da izaiten ahal Aguxtina, bere tinduaren gutizia baketzeko...

Urbil urbiletik ikusten ahalko dira Agustina Lartirigoienen obra, zonbait, Oxtikenean, Jondoni Joane gauean bai gero, hiru egunez arratsaldetan, 2etarik 6ak eterdiak artean.

*Auxtin Zamora*
*1999 / 05 / 19*

# Zer ikus, zer entzun, zer kanta...

## *Jondoni Joane gaua Senperen*

Ekainaren 23an, arratseko 9ak eterdietan hizketa Anuntxi Aranazekin: «Ura eta Jondoni Joaneko sinesmenak». Ondoren, besta suaren inguruan.

Arestian aipatu gisan, urbil urbiletik ikusten ahalko dira Agustina Lartirigoienen obra, zonbait, Oxtikenean, Jondoni Joane gauean bai gero, hiru egunez arratsaldetan, 2etarik 6ak eterdiak artean.

## *Uztailaren 11n kantu bazkaria Oxtikenean*

«Kantu zahar e z ezagunaren* eguna» Senpertar ainitzen parte hartzearekin.

Kantu zahar bat edo bertze ezagutzen baduzu, zatoz kantu bazkarira.

Aintzinetik eman izenak OXTIKENEKOERI edo tel. huntara arratsez: 05 59 54 12 85

* Batzuentzat ez hain ez ezaguna

OHEKIAK NEURRI GUZITAKOAK

Roi Sommeil

MATALAZ ETA SOMIERAK

Jaldai Karrika, 102 - **DONIBANE LOHITZUN** • © 05 59 26 29 01

# Senperen Euskal Telebixta (ETB)

Ia 15 urte Euskal Telebixta itsas bazterrean ikusten ahal dela. Geroztik, jendeak galdeginik, pixkanaka pixkanaka, Herriko Etxeek hagak muntatu dituzte eta gisa hortan Saran bezala, Garazin, Xubero aldean arras ongi ikus daiteke: pilota partidak, bertsolariak, berriak, Iparraldeko Orena, elgar hizketa, eta abar...

Jaizkibel mendiari buruz diren kartierrak edo auzoak dira ETB hobekien hartzen dutenak. Bertze batzuek, adibidez, Helbarrun, Ibarrun, Urguri; Ur Xuri ibai eskuin aldea; Olha, Amotze, Aintzira parte bat, ez dute deus ikusten. Xerxebruit edo Amezketa batzuentzat Urdazuriko hagaz baliatzen dira. Sarako Herriari haga emaitea 20.000 Libera gosta zaio, Sarako Herriko Etxeko idazkaritzatik emandako xifren arabera. Gainerakoa, ETB eta herrien arteko sindikatak.

TTIPI-TTAPAren bitartez, jendeak galdeginik eta gure helburua euskara zabaltzea izanik, eskakizun hau plazaratzea onartu dugu: Senpereko herriari galdatzen zaio behar dena egin dezan ETB senpertar guziek har dezaten. Horretarako galde hau.

Ondorioak Herriko Etxeari helaraziak izanen dira, Euskal Telebixtara ere eta Herrien arteko sindikatari.




**Larrunek ETB eta ttipi-ttapa telebista denetara zabalduko duelarik ez da bertze hagarik beharrik izanen**

---

**Euskal Telebista ez dugu ikusten eta ikusi nahi genuke:**

Familian .................. lagun gira

Izena: Deitura: Etxea: Siñadura:

**Euskal Telebista ikusten dugu eta elgartasunez siñatzen dugu:**

Familian .................. lagun gira

Izena: Deitura: Etxea: Siñadura:

Zure errepusta
Igor zuzenbide huntara: André Harisgain
Gaxintoenea
64310 SENPERE

# erritarrok



ELGORRIAGA

**FRANCISCO JAVIER ALMANDOZ**

2. Amaia Telletxea
3. Jose Miguel Jorajuria
4. Antonio Eizagirre
5. Francisco Jabier Jorajuria



GOIZUETA

**Mª PILAR UNTXALO**

2. Lazaro Apezetxea
3. Fermin Narbarte
4. Joakin Loiarte
5. Ibon Elizegi
6. Daniel Narbarte
7. Idoia Albistur



ITUREN

**MARI JOSE BEREAU**

2. Belen Azpiroz
3. Jose Antonio Altxu
4. Fco. Javier Bereau
5. Teresa Mikelarena
6. Ernesto Ariztegi
7. Juan Manuel Mariezkurrena



LEITZA

**TOMAS AZPIROZ**

2. Juan Bixente Usabiaga
3. Elena Zabaleta
4. Jaione Astibia
5. Maite Sarobe
6. J. Mº Ignacio Azpiroz 7. Jose Jabier Sestorain 8. Mari Carmen Uharte
9. Jose Fermin Barriola
10. Lorenza Etxarri
11. Amaia Apezetxea

OHARRA: Erabili orrialde hau poster gisa

# bozkatu

Nafarroa

Euskal Herritarrok

# MALERREKA

## Zubietako errota inguruak apaintzeko herriko hiru langabetu hartuko dira

Zubietako errotaren ingurua apaindu eta kanalaren bazterretik pasealekua egiteko herriko hiru langabetu hartuko ditu Udalak. Horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarendirulaguntzaizanen da: hiru langile hauen bortz hilabeteko soldataeta Segurantza Soziala oso-osorik ordainduko du Enplegu Zerbitzuak.

Bertzalde, gogoratu behar da Zubietako errotaren zaharberritzeak Nafarroako eta Euskadiko Arkitektu Kolegioaren saria jaso duela. Sari hori ortziral honetan, ekainak 4, jasoko dute Maite Apeztegia arkitektuak eta Zubietako udalak, Bilboko Guggenheim museoan.

### Iturengo Herriko Ostatua hartu dute

Jose Ignacio Ariztegi Etxepeteleku iturendarrak hartu du Iturengo Herriko Ostatua heldu diren hamar urtetarako. Maiatzaren 20ko udal plenoan ireki ziren bi proposamenak eta Ariztegirena onartu zuen Udalak. Trinidade Egunean ireki eta ondotik itxi eginen du, egokitze lanak egiteko.

### Lehen jaunartzeak maiatzaren 23an ospatu ziren Iturenen

Eguerdiko mezan, herriko lau haurrek beraien lehen jaunartzea egin zuten: Iker Gorosterrazu, Pello Baztegerrika, Ander Erasun eta Ibai.

### Iturengo EHren aurkezpena

Ekainaren 4ean, arratseko 10etan, Iturengo Herriko Etxeko ganbaran bere kandidatura aurkeztuko du EHk. Solasaldi bat ere izanen da, nekazaritzari buruz.

### Mitxel Aginaga narbartearra laugarren Ilunberrin

Mitxel Aginaga kirolari narbartearra laugarrena izan zen Ilunberriko mendi bizikleta lasterketan. Nafarroako Pirinioko Irekiaren lehendabiziko proba zen eta Mitxel gustora zegoen postu horrekin. Irabia taldeak lehendabiziko sei postuak eskuratu zituen.


Zure herria.
Zure ilusioa.
Zure etorkizuna.

José Mari Gorrestarazuk
hitz ematen du ardura osoz
**ITUREN**en alde lan egiteko.

Gure herria, **LEITZA**,
zuzen eramateko garaia da, eta
Juan Oronoz erabat prest dago.

Miguel San Miguel, lanean ari naiz
**DONESTEBE**k XXI.
mendearen erronkari
aurre egiteko.

**SUNBILLA**n lortutako helburuak
finkatzeko,
Jose Mari Hernandorenak
aurrera egingo du.

**LEGASA**ko arazoei erantzun bat
eman behar zaie eta
José Javier Perez Arregui
konponbideak aurkitzeko ari da lanean.

eman botoa **eusko alkartasunari** zuk nahi duzun herriaren alde.

# GOIZUETA




**EHko taldeari babesa**
Adin guzietako goizuetarrak eskaini zioten bere babesa udal hauteskundetara aurkezten den EHko zerrendari. Arg.: P.Z.



**Lehen jaunartzea**
Azken urte hauetako markak hautsiz, 11 neska-mutikok ospatu zuten lehenengo jaunartzea maiatzaren 23an. Arg.: P.Z.

## Bost langile kontratatu ditu Udalak mendiko lanetarako

INEM eta Herriko Etxearen arteko lankidetza eman da horretarako

ESTEBAN AROZENA

Ekainaren lehenengo egunetik irailaren 15a arteko kontratua sinatu dute Udaletxean INEMeko zerrendetan apuntatuak zeuden bost goizuetarrak. Herriaren hainbat plantazioetako garbiketa, kimatze eta markaketa lanak egin beharko dituzte, batez ere, langile hauek.

INEM eta Herriko Etxearen lankidetzari esker eman dira kontratazioak. Sei hilabeterako eskaera luzatu zuen Udalak, baina azkenean, lehen esan bezala, hiru hilabete terdiko bakarrik jasoko da dirulaguntza INEMetik, languleen soldataren zati haundi bat, ia 4 milioi pezeta, estatuko erakunde honek emanen baitu.

**Hautes-mahaiak**

Ekainaren 13an bi hautes-mahaiak osatuko dituzten herritarren zerrenda publikoa da dagoeneko Herriko Etxean egindako zozketaren ondoren. A mahaiko presidentea Ainhoa Bakero izanen da, eta mahaikideak, Igor Ariztegi eta Juan Jose Elizalde. B mahaian berriz, Ana Jimenezek beteko du presidentearen lana, eta Eugenio Juanarena eta Maite Lujanbio Etxegiak bokalena. Jakina den bezala, Nafarroako eta Europako Parlamentuez gain, Udaletxeak berrituko dira ekainaren 13ko hauteskundeen ondoren

# ARESO

## Kultur Egunak asteburu honetan ospatuko dira

Sahararren aldeko diru bilketa kanpaina egingo da

JUANA Mª SAIZAR

Asteburu honetan, ekainaren 5 eta 6an, Kultur Egunak ospatuko dira. Larunbatean, Euskal Herriko mitoei buruzko hitzaldia izango da. Gauean, afaria, bertsoak eta musikarekin.

Igande goizean kalejira herrian zehar, umeentzako jokuak plazan eta pilota partiduak. Taloak eta pintxoak jateko aukera emango eta patata tortilla lehiaketa jokatuko da. Tortilla hauekin, entsalada eta postrearekin bazkaria egingo da. Arratsaldez, dantza saioa txikien taldearekin. Kultur taldeak antolatutako egitaraua oraindik zehaztu gabe dago eta aldaketak egon daitezke.

**Aresoar bakoitzak mila pezeta sahararren alde**

Udaran 35 saharar Euskal Herrira ekartzeko modu bakarra da. Aresora hiru ekarri nahi dira, hain xuxen. Aresoar bakoitzak mila pezeta jarri beharko luke. Aresoarren laguntza eskatu dute, ekainaren 10a baino lehen. Kontuak irekiak daude Leitzako bankuetxe guzietan.



**Santa Kruzeko elizan erromeria**
Aurreko alean aipatu bezala, maiatzaren 2an erromeria egin zen Santa Kruzeko baselizara. Amabirjinari loreak eskaini zizkioten herriko lau neskak eta gazta, ogia eta ardoa dastatu zuten bertan bildutakoek.

## LEITZA



**Parke berria Patxi Arrazolan**
350.000 pezeta kosta da Patxi Arrazolan Udalak jarri berria duen jostailu berriak. Probetxua aterako diote haurrek.

Argazkiak: Joseba



**Ixkibar itxura berriarekin**
Dagoeneko bukatuak dira Ixkibarreko errekuperazio lanak. Bertan lau su-leku, sei mahai, seinaleak, panelak... jarri dira. Gainera, ingutua txukundu eta hiru ibilbide markatu dira.

# Hauteskunde kanpainan murgilduak talde guziak

Iruñera joan-etorria eginen du autobusak jaiegunetan

JOSEBA AZPIROZ

Hauteskunde kanpainan murgilduak daude eta herriko hiru taldeek eginen dituzte beraien ekitaldiak.

Euskal Herritarrok taldeak ekitaldi nagusia ekainaren 10ean, ostirala, arratsaldeko 8etan plazan eginen duen mitina izanen du. Bertan, Pernando Barrenak, Igor Arroyok eta Tomas Azpirotzek parte hartuko dute. Bestalde, ekainaren 4an, arratseko 8etan, kotxe-karabana abiatuko da plazatik.

Eusko Alkartasunak igande honetan, ekainak 6, izanen du ekitaldi nagusia. Eguerdiko 12etan hasiko den ekitaldi politikoan, Begoña Errastik eta Juan Oronozek hitzeginen dute. Ondoren, bazkaria izanen da sinpatizante eta militanteentzat Guratzmendi elkartean.

UPNk ere eginen du bere ekitaldi politikoa, baina oraindik eguna zehaztu gabe dute.

### Autobusa Iruñera igande eta jaiegunetan

Leitzako Udalaren eskaeraren ondorioz, Nafarroako Gobernuak Leizaran S.L.ri baimena eman dio, froga moduan eta ekainaren 27a arte, igande eta jaiegunetan Iruñera autobus zerbitzua eskaintzeko. Autobusa Leitzatik goizeko 9etan eta arratsaldeko 6etan ateratzen da eta Iruñetik goizeko 10etan eta arratsaldeko 7etan.



**Depuradora lanean**
Araztegia edo depuradora martxan dago maiatzaren erdiaz geroztik. Errekaren mesedetarako izanen da.



**Gure Etxea bota eta pisuak eginen dira**
Gure-Etxea, 1922. urtean Jose Mari Lizarraga «amerikanoak» eraikitako etxea botatzen ari dira, orube horretan pisu batzuk egiteko.


ZALDUBI



Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zoldubi Poligonoa • ✆ 948 580 562 IRURITA

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

## BAZTAN

# 1.272 milioi pezetako udal aurrekontua izanen da aurten

724 milioiko inbertsioak eginen dira

TTIPI-TTAPA

Balleko Udalak 1.271.944.450 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten, EAren aldeko botuekin eta UPNren kontrakoekin onartutako aurrekontuaren arabera. Diru sarrerei dagokienez, zerga ezberdinen eta tasen bidez kasik 228 milioi pezeta lortuko ditu Udalak, dirulaguntzen bidez 566 milioi, transferentzia arruntei esker, 279 milioi pezeta. Herrilur eta ondarearen bitartez, 68 milioitik goiti sartuko dira udal kutxetan. Diru irteeretan, berriz, gasturik haundienak inbertsioetan joanen dira (724 milioi pezeta), langileen soldatetan 208 milioi gastatuko dira eta 207 milioi ondasunak eta zerbitzuak erosten. Transferentzia arruntetan 60 milioi joanen dira.

Baztango udal ikastolak 58.876.344 pezetako aurrekontua izanen du eta F.J. Iriarte erresidentziak 182.100.000 pezetakoa.



**Ikastaroaren ondotik afaria**

Erratzuko eskulan eta jostura ikastaroetan ibilitako emakumeak afari batean bildu ziren, ikastaroa akautu ondotik. Argazkia: Mª Josefa Begorra

## Elizondoko batzarreak ez ditu begi onez ikusten saihesbidea eta Kuartelekozelaiko parkea

Elizondoko batzarreak azalpenak eskatu dizkio Balleko Udalari, Elizondon eginen litzatekeen saihesbideari buruz. Momentuz, ez dago ez proiekturik ezta aitzinproiekturik ere, baina trazatu bat agertu da eta zenbait lur-eremuren erreserba egina dago. Honek kezka sortu du elizondarren artean, 110 lagun bildu baitziren batzarrean. Izan ere, trazatua azken bortz urtetan egin diren zenbait etxe ez dira ageri eta balizko errepide berria, etxe hauen gainetik edo ondotik pasako litzateke. Anastasio Nagore Elizondoko alkatea Balleko Udalarekin bildu da eta aitzinproiektua aurkezten denean, alde guziak bildu eta eztabaidatuko dela segurtatu diote.

Bertzalde, Kuartelekozelaiko parke berritzeko aurreproiektua *«astakeria»* iruditu zaie Elizondoko alkate eta kargodunei. Gabriel Laborra kargodun eta arkitektuak aztertu ditu saihesbidearen trazatua eta parkearen proiektua eta biek gaizki daudela uste du. Parkearen proiektuaren arabera, Ikastolako parkean dauden zuhaitzak bota eta inguru guzia pareta batekin itxiko litzateke. Batzarraren ustez, zola moldatzea beharrezkoa da, baina zuhaitzak bere hortan eta pasabidea libro utziz.

Azkenik, herriko gastuak estaltzen laguntzeko Elizondoko familia bakoitzak mila duro ordaintzea erabaki zen. Honela, alkate eta kargodunak ez dira etxez etxe ibili beharko bestak antolatzeko diru eskean.

### *Pertsonaia*

*Iraitz Goñi nagusi Iruritako 46. Salbatore Txirrindulari Sarian*

Irabia taldeko Iraitz Goñi txirrindularia nagusitu zen Iruritako bestetan burututako Salbatore Sariaren 46. edizioan. Junior mailako txirrindulariei zuzendutako proba hau akitzeko, 2 ordu, 31 minutu eta 32 segundu behar izan zituen irabazleak. Sprintean erabaki zen podiuma eta Goñiren denbora berean sartu ziren Mapfre taldeko Jorge Azanza eta Irabia taldeko Julio Gea. Guzira 51 txirrindularik hasi zuten 95 kilometro terdiko proba eta 25 bertzerik ez ziren helmugara ailegatu. Irabazleak, orduko 37,615 kilometro egin zituen banaz bertze. Goñik zioenez, «hasieratik aitzinean egon naiz, baina bigarren aldiz Zigako gaina igain dugunean gibelera gelditu naiz. Mugairira jausterakoan berriz ere harrapatu ditut aitzinekoak eta sprintean nagusitu naiz».




Iraitz GOÑI

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • ✆ 948 580373 • 608 776176

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

Ander goxokiak
Urtebetetze poltsak
Piñatak...
Santiago 33 - ELIZONDO
✆ 948 452294

## BAZTAN

# Elizondoko Antxitonea trinketea moldatu eta hotela zabalduko da

## Azpilkuetako Francisco Urrutia da jabe berria

TTIPI-TTAPA

Antxitonea trinketea moldatu ondotik, kirola egiteko aukeraz gain –trinketea, squash, gimnasioa igerileku klimatizatua–, jatetxea eta 22 logelako hotela zabaltzeko asmoa azaldu du Francisco Urrutia Juanikotenak. Urrutia sortzez Azpilkuetakoa da, 36 urte ditu eta horietatik erdiak Mexikon eman ditu. Orai, Baztanera itzuli eta hemen laketzeko asmoa du, bidenabarkoan Antxitonea biziberrituz. Izan ere, duela hogei urte itxi ziren Antxitonea hotel zaharreko hamasei logelak. Geroztik, jatetxea ere itxi zen eta hilbeltz honetatik aitzinera ez da trinketean jokatzen, moldaketa lanak egin ahal izateko.



**Francisco Urrutia azpilkuetarra Antxitonea trinketearen aitzinean. Heldu den urteko udarako zabaltzea espero du, 100 milioi pezeta gostako diren lanak akitu ondotik.** Diario de Navarra

### 105 URTEKO HISTORIA DU ANTXITONEA TRINKETEAK

Antxitonea trinketean 1894an eraiki zuten. Duela bortz urte mendeurrena ospatu zen eta, beraz, milaka eta milaka pilotakada eman dira bertan. Hainbat bertso saio ere aditu dira bere pareten barrenean eta Baztango bertso areto nagusia dela erraten ahal da.

Moldaketen ondotik, kirola izanen da Antxitonearen zutabe nagusia. Baztan eta Iparraldeko pilotarien arteko txapelketak antolatzeko asmoa du Urrutiak. Bertzalde, gibeleko aldean dituen garajeak bota eta igerileku klimatizatua eginen da. Gimnasioa, squash aretoa eta sauna ere paratuko du. Sukaldea eta jatetxea ere berriro lanean jarri nahi ditu eta hotel berrian 22 logela izanen dira. Guzira 100 milioi pezetako inbertsioa eginen du eta heldu den urteko udarako zabalik egotea espero du. Lanen zuzendaritza Eduardo Zubikoa arkitektu elizondarrak eginen du

### flash

**Zolaberritze lanak Anizen**
Azpiroz y Saralegi eraikuntza enpresak eginen ditu Anizko zolaberritze lanak, 4.566.273 pezetaren truke.

**Arraiozko**
Urrutia auzoan, Elizaldeako bidegurutzean trafikoarendako ispilua jarriko da. Bidegurutze hau arriskutsua da eta ustegabe bat baino gehiago suertatu da.

**Arizkungo**
Ordoki auzoan urbanizazio lanak (moldaketak eta argia sartu) egiteko lehiaketa egin du Udalak. 101.443.124 pezetakoa da hasierako aurrekontua. Proposamenak aurkezteko epea ekainaren 3an akitu da.

### Kultura eta kirola bultzatzeko hitzarmena berritu dute Elizondoko herriak eta Nafarroako Aurrezki Kutxak

Nafarroako Aurrezki Kitxak Elizondon antolatzen diren kultur eta kirol ekitaldiak laguntzen segituko du, duela hiru urte Elizondoko alkatearekin sinatutako elkarlan hitzarmena berritu ondotik. Ana Mari Marin alkate zela hasi zen elkarlan hau, Satiago Aldakorekin segitu zuen eta orai, Anastasio Nagorekin berritu da. Zehazki, CANen dirulaguntza Udaberriko Kultura kanpainara bideratzen da. Aurten, izandako errekista kontuan hartuz, «12 ordu eskuaraz» ekitaldia ere sartu da.

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

ARGIBEL OPTIKA
✆ 948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO
Aukera zabala
- Anteojak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

## BAZTAN

# Baztan Balleko seigarren mendi ibilaldia igande honetan burutuko da

### 32 kilometroko ibilbidea bete beharko dute partehartzaileek Gartzainetik abiatuta

TTIPI-TTAPA




**Hasierako hamahiru kilometroak gogor xamarrak badira ere, gero maldan beheiti edo zelaia izanen da ibilbide gehiena.**

Igande honetan, ekainak 6, burutuko da baztango Mendigoizaleak taldeak seigarren urtez antolatutako Baztan Balleko mendi ibilaldia. Urtero-urtero Baztango leku desberdinak erakutsi nahi izaten dute ibilaldi honetan eta aurten, Gartzain-Gartzain 32 kilometroko ibilbidea prestatu dute. Hasmentan, maldan goiti ibili beharko dute partehartzaileek, Gartzaingo 235 metroetatik hasi eta Zudebenea (275 metro), Meaka (495 m), Trepa (860 m), Erdiz (1.075 m) eta Okoro (1.280 m) igain beharko baitute. Hamahirugarren kilometro horretatik aitzin, ordea, maldan beheiti edo zelaia izanen dute gehienbat, Azaldegi (990 m), Belaun (800 m), Askota-Beartzun (410 m) eta Bentako-Borda (535 m) igaroz, Gartzainera itzuli baino lehen.

Ibilbide honi buruzko argibideak jakin edo izena eman nahi izanez gero, 948 58 12 79 telefonora deitu behar da, goizeko 7,30etatik arratsaldeko 3etara eta Elixabetekin solastu. Ordu horretatik aitzinera, erantzungailuan uzten ahal da mezua. Ibilbidean parte hartzeko 700 pezeta ordaindu beharko da. Lehenengo taldearen ateraldia goizeko zazpietan izanen da eta hortik aitzin, izen emandako ordenaren arabera abiatuko dira.

Antolatzaileek aipatu dutenez, osasun postuak paratuko dira, edozein unetan behar den laguntza emateko. Eraberean, ez da inolako sailkapenik egonen, baina diploma bana emanen zaie finkatutako denboretan kontrol-postu guztietatik pasa direnei.

# Baztan futbol taldeak igoera promozioa jokatu behar du

### Preferenten bigarren akitu du liga ederra egin ondotik

Baztan futbol talde nagusiak Hirugarren mailara igaiteko promozioa jokatu beharko du, Preferente mailako ligan bigarren gelditu ondotik. Baztandarrek liga ederra burutu dute, baina ezin izan dute sailkapenean Idoya taldea gainditu.

Oraindik badu Hirugarren mailara bueltatzeko aukerarik, Errioxako Preferente mailan bigarren izan den taldearen kontra bi partidu jokatu beharko baitu, bat Errioxan eta bertzea Giltxaurdin. Lortu edo ez, zorionak Baztan taldeari.



**Iruritako Edurne Ubani pianojolea Bulgariarat**

Edurne Ubani Weber, 19 urteko pianojole iruritarrak Bulgariako Irrati-Telebistako Orkesta Sinfonikoaren gonbitea jaso du, diska baten grabaketan parte hartzeko. Grabaketa Sofian eginen da, ekaina eta uztailan, eta gero bertze bi kontzertutan ariko da Ubani, Sofian bertan eta Varnan. Bulgariatik itzulita, urria eta abendua bitartean zortzi emanaldi eskainiko ditu bakarlari gisara Espainiako bertze hainbat hiritan.

## SARA

# Union Basque esku pilota lehiaketan herriko bi bikote txapeldun

Pleka trinketeko xoko zoingehiagoka ere abiatu da

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Union Basque esku uska pilota lehiaketaren kondu, Sarako bi talde txapeldun ateri ziren Lekornen iragan ziren finaletan.

***Xoriak mailan***, Mikael Laborde eta Iñaki Jauregik 2 puntutik irabazi zioten Azkaingo taldeari, 40-38.

***Adinekoen mailan,*** Pierre Arotzarena eta Xan Urbistondok 50 puntutan jokatu zuten eta 13 puntutik irabazi zuten Kristof Saint Jean eta Frederik Barrenetxeren aurka (50-37).



**Joko Berri lehiaketan, bigarren mailako finalistak.**

### Joko Berri lehiaketaren finalak

